

AURREKONTUAK 2011

LABURPENA

AURKIBIDEA

ORRIALDEAK

- Batzordearen Diktamena (2010-12-16koa)	1-2
- 2011ako Aurrekontuaren ezaugarri nagusiak	3-4
- Gastuen Aurrekontua. Kapitulukako banaketa eta 2010-2011 konparaketak	5-7
- 2011ako Gastuen Batzordekako banaketa	8
- Dirusarreraren Aurrekontua. Kapitulukako banaketa eta 2010-2011 konparaketak	9-11



2011. URTEALDIKO AURREKONTUAK ONARTZEKO PROPOSATZEA.

Alkateak 2011ko aurrekontuen proiektua aurkeztu du, aztertu eta eztabaidatzeko. Agiri horrek oinarria du udal sailetako arduradun teknikariek eta politikariek egindako eskaeretan, eta Ogasun Batzordera bidali da, dokumentua izapidetu dezan.

Horri buruz, hartarako emandako epean, PSE-EE (hauek osoko zuzenketa aurkeztu dute), EAJ-PNV, ALTERNATIBA/ZUTIK, EA, PP eta ARALAR udal taldeek hainbat aldaketa proposamen aurkeztu dituzte, 2011eko aurrekontuen proiektuari dagokionez. Ogasun Batzordean aldaketa proposamen horiek bozkatu eta gero, onartutakoak 2011ko aurrekontuen proiektuan sartu dira eta onartu ez direnak, bere kasuan (udal taldeek mantentzen badituzte), Udal osoko bilkuran planteatu beharko dira.

Hortaz, **2011eko urtealdiko aurrekontu orokorren proiektuan onartutako aldaketa horiek sartu eta gero, aurrekontua da HOGEITA HAMAHIRU MILIOI HIRUROGEI ETA HEMERETZI MILA ZAZPI EHUN ETA HIRUROGEITA SEI EURO ETA HOGEITA BEDERATZI ZENTIMO (33.079.766,29 €), eta hor sartuta daude Udalaren beraren udal aurrekontua, HOGEITA BEDERATZI MILIOI ETA ZAZPI EHUN MILA ETA EHUN ETA HAMASEI EURO ETA HOGEITABEDERATZI ZENTIMO (29.700.116,29 €) eta ITURBIDE eta AUKEA erakunde autonomoen aurrekontuak, hurrenez hurren, HIRU MILIOI ETA EHUN ETA HOGEITALAU MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMABI EURO ETA BERROGEITA ZORTZI ZENTIMO (3.124.532,48 €) eta MILIOI BAT ZAZPIEHUN ETA LAU MILA BERREHUN ETA HOGEITABAT EURO ETA BERROGEI ZENTIMO (1.704.221.40 €).**

Proiektu hori aztertu eta gero, bai eta aurrekontu horiek betetzeko arauak, Ogasun Batzordeak aldeko txostena aurkezten dio Udalbatzarrari, JM Sanpedro batzordeburuaren (atxiki gabeko zinegotzia) eta EA eta ARALAR udal taldeen ordezkariaren aldeko botoarekin, PSE-EEko ordezkariaren kontrako botoarekin eta EAJ-PNVko eta ALTERNATIBA/ZUTIKeko ordezkarien abstentzioarekin, akordio hau hartu dezan:

1.- Hasiera batean onartzea 2011eko urtealdiko aurrekontu orokorra. Barne hartzen ditu Udalaren beraren aurrekontua nahiz ITURBIDE EGOITZA eta AUKEA erakunde autonomoen aurrekontuak, aurrekontu bakoitza betetzeko arauekin batera, eta Udalaren beraren aurrekontuaren konpromiso kredituen eranskina ere bai.

2.- Espedientea jende aurrean erakustea, interesdunek aztertu eta bidezkoztat jotako erreklamazioak aurkeztu ditzaten, 15 egun balioduneko epean, jende aurrean erakusteko iragarkia argitaratzen dutenetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

3.- Jende aurrean erakusteko aldi horretan aurrekontuaren aurkako erreklamaziorik jaso ezean, espedientea behin betiko onartzea.

Arrasaten, 2010eko abenduaren 16an

Batzordeburua



2011AKO AURREKONTUEN EZAUGARRI NAGUSIAK

2011rako Aurrekontua, legealdi honetako azkena da eta urtearen erditik aurrera Korporazio berri baten esku geratuko da. Hemen aurkezten dugun Aurrekontuak iragan bi urteetako en joera murriztaileari jarraitzen dio eta 2008koekin alderatuz %70 suposatzen du.

Jarduera ekonomikoaren bat-bateko jaitsiera, herriaren garapena, "gerapen" bihurtuta, administrazio guztien murrizpen planak osatzen duten koadroari, orokorrean bizi dugun egoera ekonomiko larria gehitzen badiogu, termino ekonomikoetan behintzat, etorkizun zaila dugula antzeman daiteke.

Udal aurrekontuetako diru iturriak, modu esanguratsuan murriztuz joan dira; zerga orokorretatik, doi-doi heltzen zaigu %9; %15etik gorakoa beharko genukeenean gutxienez geure eskuduntzei duintasunez erantzun ahal izateko eta benetan gutxieneko udal autonomia bat egiazki gauzatzeko.

Eta Udal honen erabaki sendoa da ditugun energia guztiak ipiniko ditugula beharrezko bitartekoak lortzen, desberdintasun sozialen ondorioei aurre egiteko, gure kultura aldarrikatzeko, gure hizkuntzaren garapena eta hedapena sendotzeko, ezagutza orokortzeko, gizarte kohesioa lortzeko, herritar guztiekin mantendu behar den elkarlanean oinarriturik.

2011 urtea lanez eta erronkaz beteta datorkigu; itxaropenez ere bai, ordea. Euskal Herrian bizi dugun egoera, denbora berrien seinale dela dirudi. Eta gizarte guztietan bezala, gurean ere elkarturik doaz arlo nahiz arazo sozial, politiko, kulturalak edota ekonomikoak.

Ez ditzagun joaten utzi, eragile bihurtu behar gara denok (ere); bakoitza bere lekutik eta bere neurrian, itxaropenaren goxotasuna eta errealitatearen gordintasuna nahasi baitoaz beti, aurrera egitea bideragarri eginaz.

Gobernu taldeak, Udalbatzarrak eztabaidatzeko eta, hala badagokio, onartzeko, 2011ko aurrekontuen proiektua aztertuko dugu, eta adieraziko dugu aurrekontu orokorra dela 33.079.766,29 eurokoa, eta horietatik udalaren aurrekontua da 29.700.116,29 euro, eta Iturbide Egoitza eta Aukea erakunde autonomoena da 3.124.532,48 € eta 1.704.221,40 €, hurrenez hurren.

Krisialdi eta gastu murrizpenaren testuinguru honetan, gero eta zailagoa da aurrekontu eztabaida, erabaki berriak hartzeko maniobra marjina oso txikia delako, kontratu bidez gure gain hartutako konpromiso pila batekin eta abian jarrita dauden zerbitzu batzuk, behar beste diru-baliabide eskatzen dutenak, kalitateak behera egin ez dezan, eta horrek dakar zama finko bat, apenas aldatu daitekeena. Dauxkagun baliabideak ez dira behar bestekoak esku artean ditugun beharrezanezi erantzuteko, eta guztiz beharrezkoa da ahalegina egitea lehenetasunak ezartzeko, zeren-eta egin nahi ditugun jarduera guztiak ez baitira berdin defendagarriak, eta herritar guztiek ez baitituzte gaitasun ekonomiko berberak, eta ez dituzten planteatzen antzeko beharrezan eta eskariak. Hau da, garbi dago gerrikoa estutu beharko dugula, baina irizpidez egin behar dugu, bereiziz eta benetan behar dutenei lagunduz.



Saiatuko gara agertzen 2011ko aurrekontuaren ezaugarri nagusiak; besteak beste, hauek:

- a) **Gastu korronteari oro har eustea.**
- b) **Udalaren inbertsio jarduera nabarmen jaitea (▼69%, onartutako 2010eko aurrekontuari buruz eta 80% 2010eko bukaerako aurrekontuari buruz).**
- c) **Udalaren zorpetzeari eustea**, hurrengo Udalbatzari maniobra marjina bat utzi nahi diogu, hark erabakiak hartu ahal izan ditzan.
- d) **Galtzea** (hala dago adierazita) **2011n diru-laguntzen programa bereziak**, Estatutik nahiz Eusko Jaurlaritzatik bultzatuz irenak 2009an eta 2010ean (7,5 milioi euro bi urte horietan), neurri berezi eta urgente moduan krisialdiari aurre egiteko eta herri eremuan inbertsio publikoa igotzeko.

2011ko aurrekontuetako alderdi kualitatiborik esanguratsuenak aipatu eta gero, urtealdi honetarako aurreikusitako zenbatekoak aipatuko ditugu, bai Udalari dagozkionak bai erakunde autonomoei dagozkienak ere. Hauek dira:

Udalaren aurrekontua	29.700.116,29 Euro
AUKEAren aurrekontua	1.704.221,40 Euro
Iturbide Egoitzaren aurrekontua	3.124.532,48 Euro

Aurrekontu Orokor finkatua edo hiru aurrekontuak batuta, barne transferentziak kenduta (defizita estaltzeko ekarpenak, Udalaren fakturazioak ur eta zabor zerbitzuak erakunde autonomoei) kopuru hauxe dugu, **33.079.766,29 €**.

Zenbateko horiek eta 2010eko aurrekontuan onartutako kopuruak alderatuz gero, koadro hau izango dugu:

ERAKUNDEA	AURREK. 2011	AURREK. 2010	ALDAERA	▲ 2011/2010
Udala	29.700,12	34.162,59	-4.462,47	-13,06%
Aukea	1.704,22	1.722,59	-18,37	-1,06%
Iturbide	3.124,53	3.041,55	+ 82,98	2,73%
Aurrek.Orokorra	33.079,77	37.526,64	-4.446,87	-11,85%

(Mila eurotan adierazitako kopuruak)

Orain eta hemen, Udalaren aurrekontuaren gastuen eta diru-sarrereren kontu-sail nagusiak aztertuko ditugu zehatzago, eta erakunde autonomoetako aurrekontuak erakundeek eurek idatzitako memorieta dato azterturik, agiri honetan bertan.



Gastuen atalean, Udalaren aurrekontua aztertzen hasiko gara.

GASTUEN AURREKONTUA- 2011

2011ko urtealdirako pentsatutako zenbatekoa guztira da 29.700.116,29 euro, eta %13,06 jaitsi dugu 2010eko aurrekontuaren aldean.

Aurreko urtealdiari buruz 2011ko aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa aztertu ondoren, koadro hau daukagu:

KONPARAZIO KOADROA, 2011KO AURREK. – 2010EKO HASIER. AURREK.

Kapitulua	AURRE. 2010	% GUZT.	AURRE. 2011	% GUZT.	ALDEA	▲11/10
I Perts. Gastuak	9.875,8	28,91%	9.400,70	31,65%	-475,10	-4,81%
II Ond. Eta Zerb.	9.069,7	26,55%	9.038,40	30,43%	-31,30	-0,35%
III Interesak	148	0,43%	179,2	0,60%	31,20	21,08%
IV Transferen. arruntak	5.900	17,27%	5.799,00	19,53%	-101,00	-1,71%
VI Inbertsioak	7.041	20,61%	2.187,50	7,37%	-4.853,50	-68,93%
VII Kap.Transferentz.	959,3	2,81%	749,3	2,52%	-210,00	-21,89%
VIII Finan. Aktib. aldak.	90	0,26%	209,3	0,71%	119,30	132,56%
IX Amortizazioak	1.078,8	3,16%	2.136,70	7,19%	1.057,90	98,06%
GUZTIRA	34.162,6	100%	29.700,10	100%	-4.462,50	-13,06%

(Mila euroan adierazitako kopuruak)

Laburtzeko, hona hemen 100 eurotik zenbat eta zertan gastatuko duen Udalak 2011n:

- **31,65 €** erabili dira **pertsonal gastuei** aurre egiteko, Udalean egitekoak betetzeko liberaturik dauden udalkideen ordainketak sartuta.

- **30,43 €** behar dugu **udal zerbitzuen funtzionamendutik** sortzen diren gastu korronteei erantzuteko.


- **7,79 €** dira **banketxeekin (maileguen interesak eta amortizazioak) eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin (2009ko UFFFren saldo negatiboa)** hartutako konpromisoak betetzeko.

- **19,53 €** dira **transferentzia korrontek edo diru-laguntzak** finantzatzeko; horietatik **11,44** euro dira udalen arteko zerbitzuen kuotak eta AUKEAren eta Iturbide Egoitzaren defizitak (azken horiek berez udal zerbitzuak dira).




- **7,37 €** dira zuzenean egiten dituen inbertsioak finantzatzeko.
- **2,52 €** dira beste administrazio edo erakunde batzuek egindako inbertsioak diruz lagundu edo elkarrekin finantzatzeko.
- **0,71** euro finantza aktiboak erosteko, hala nola, langileei itzuli dakizkiekeen aurrerakinak (diru-sarrera kopuru berbera) eta **Garaia S.Coop**.ren kapitalari egin beharreko ekarpena.

Honekin batera doazen grafikoetan 2011ko gastuen aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa ikusi dezakegu, 2010eko aurrekontuaren aldean, eta 2011eko gastuaren portzentaje banaketa, kapituluz kapitulu.





GASTUA BANATZEA KAPITULUZ-KAPITULU -2011KO AURREKONTUA






2011 AURREKONTUAREN GASTUAREN BANAKETA- BATZORDEKA, ETA 2010-2011EKO KONPARAKETA

Bestalde, 2011ko aurrekontuen gastuaren banaketa arloka edo batzordeka egiten badugu, koadro hau lortzen dugu:

2011ko AURREKONTUAK- BATZORDEKA - (mila euroan)

BATZORDEAK	2010	%
01 – Gobernu organoak	500,35	1,68%
02 – Kultura eta Kirolak	3.477,10	11,71%
03 - Finantza zorra	2.315,95	7,80%
04 – Ongizatea	2.953,96	9,95%
05 – Hirigintza	1.516,35	5,11%
06 – Pertsonala	2.517,97	8,48%
07 – Ingurumena – Enplegua	1.196,67	4,03%
08 – Obra eta zerbitzuak	11.654,50	39,24%
09 – Hezkuntza	766,24	2,58%
10 – Euskara	1.149,82	3,87%
11 – Gazteria	632,71	2,13%
12 – Emakumea	257,96	0,87%
13 -Ogasuna	760,53	2,56%
GUZTIRA	29.700,11	100%





2011KO AURREKONTUAREN SARRERAK- KAPITULUKA ETA 2011-2010KO KONPARAKETA



Diru-sarrerak dira 29.700.116,29 euro eta 2010eko aurrekontuaren aldean %13,06 gutxitu dira.

Aztertzen badugu eboluzioa 2011ko aurrekontuaren kapituluz kapitulua, 2010eko aurrekontuaren aldean, konparazio koadro hau lortuko dugu:

2011-2010 AURREK. EBOLUZIOA, KAPITULUKA MILA EUROAN

KAPITULUA	AURREK 2011	%/GUZ.	AURREK 2010	% GUZ.	ALDEA 2011-2010	▲ 2011/10
I -ZUZENEKO ZERGAK	6.470,6	21,79%	6.190,1	18,12%	280,5	4,53%
II -ZEHARKAKO ZERGAK	769,3	2,59%	1.000	2,93%	-230,7	-23,07%
III TASAK ETA PREZIOAK	6.044,7	20,35%	6.129,9	17,94%	-85,2	-1,39%
IV TRANSF. KORRONT.	13.900,8	46,80%	14.359,4	42,03%	-458,6	-3,19%
V ONDARE SARRERAK	174,0	0,59%	252	0,74%	-78	-30,95%
VI ONDAREA SALTZEA	409,3	1,38%	1.933,8	5,66%	-1.524,5	-78,83%
VII KAPIT. TRANSF.	441,6	1,49%	1.102,5	3,23%	-660,9	-59,94%
VIII FINAN. AKTIB. ALDAK.	90	0,3%	90	0,26%	0	0
IX FINAN.PASIB.ALDAK.	1.399,8	4,71%	3.104,9	9,09%	-1.705,1	-54,92%
GUZTIRA	29.700,1	100%	34.162,6	100%	-4.462,5	-13,06%

Honekin batera doazen grafikoetan 2011ko aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa ikusi dezakegu, 2010eko aurrekontuaren aldean, eta diru-sarreraren aurrekontuaren kapituluz kapituluko portzentaje banaketa ere bai.





Azkenik, adierazi behar dugu 2011n Udalak sartuko duen 100 euro bakoitzeko:

- **44,73** datoz **udal zergetatik** (diru-sarrereren I, II eta III. kapituluak), horietatik hirigintza jarduerak (EOZ) sortzen du 2,59.
- **46,80** datoz beste erakunde edo administrazio batzuen **diru-laguntza korronteetatik, horietatik 41,91 datoz Udalak Finantzatzeko Foru Fondotik.**
- **0,59** lortzen dira **ondare diru-sarrereren bidez.**
- **1,38** datoz **ondare saltzetik edo hirigintza karga eta aprobetxamenduen diru-sarreretatik.**
- **1,49** lortzen dira inbertsioak finantzatzeko jasotako **kapital diru-laguntzetatik.**
- **0,3** datoz **langileen aurrerakinak itzultzetik** eta beste kontzeptu batzuetatik.
- **4,71** lortzen dira **zorpetze bidez**, hau da, sinatu beharreko mailegu berriak.